

## **EAJ-PNV / EH BILDU / BALEIKE-REN ARTEKO ADIERAZPENA**

Ilusioz bizi dugu une historiko hau. Ilusioz, itxaropenenez, arduraz eta batez ere arretaz, kataluniak urriaren 1ean hitzordua bait du demokraziarekin, hitzordu bat du etorkizunarekin. Egun gutxi barru bide emango zaio katalanen hitzari eta borondateari. Gehiengo zabalez, etorkizunerako estatus politikoa erreferendum baten bidez erabakitzera doaz.- Kataluniako herriaren ametsa betetzera doa eta haien ametsa gurea ere bada: herritar gisa erabakitzea. Horregatik, ondorengo adierazi nahi da:

1.-EAJ – EH BILDU –BALEKE alderdiek (hemendik aurrera alderdi politikook) kezka adierazi eta baztertu egiten du katalanen bozkatzeko nahiari eta erabakitzeko eskubidea erabiltzeari Espainiako Estatutik jasotzen ari den erantzun antidemokratiko eta autoritarioari.

2. Alderdi politikook exigitzen dugu zigor bidea eta mehatxuak alde batera gelditu daitezten. Erabakitzeko bozkatzeari demokrazia delako, ulertezina da erreferenduma auzitegien jomugan jartzea eta herritarren botoaren balioa ukatzea. Kataluniako herritarren gehiengoaren borondate demokratiko eta baketsuari erantzuten dio erreferendumak, eta horregatik, erreferenduma posible izan behar da.

3.- Alderdi politikook Espainiako Gobernuari eskatzen diogu bertan behera utzi dezala oinarrizko eta funtsezko askatasunen aurkako-estrategia, demokrazioaren oinarrizko printzipioen aurkakoa.

4.- Modu demokratikoan aukeratuak izan diren kataluniako alkateak deklaratzera deitzea irmoki salatzen dugu. Demokrazia praktikan jartzea halabidetu nahi duten alkateak inputatzea deitoratzen du.

5.- Alderdi politikook berretsi egiten dugu funtsezko printzipio demokratiko guztiekiko konpromisoa, eta elkartasuna adierazten die Katalunia-ko herriari, eta baita demokraziaren aurkako ekintzak - pairatzen diharduten pertsona eta erakunde guztiei.

6. –Alderdi politikook Estatuko Gobernuari exigitzen diogu bere jokamoldea amaitu eta eztabaida eta adostasun politikorako bidea ireki dezan.

7.- Alderdi politikook dei egiten dugu Kataluniako herriaren asmo demokratikoaren adierazpena ahalbideratzea eta erabakiak errespetatzera.

8.- Alderdi politiko hauek urriaren bateko emaitza errespetatzen du eta Instituzio zein eragileei ere berdina egitea eskatzen die. Horretarako erabaki honen berri, Kataluniako Parlament-eko lehendakariari, Madrilgo Gobernuako presidenteari eta Auzitegi Konstituzionaleko presidenteari ematea erabakitzen du. Gure udalerriko herritarrei ere jakineraziko zaie erabaki honen berri.

Larunbata, irailak 30, arratsaldeko 17,30tan LA CASILLAN, Bilbon, Kataluniari elkartasuna adierazteko “Demokrazia, erabakitzeko askatasuna” lelopean GURE ESKU DAGOK deitutako manifestalzioaren deialdiarekin bat egiten dugu.